

Atzerritarren Bulegoetan egin beharreko izapideak

Atzerritarren Bulegoak

➔ Atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ)

Atzerritarraren identifikazio-zenbakia Atzerritarren Bulegoak ematen du, eta pertsonala da, bakarra, eksklusiboa eta sekuentziala. Espainiako estatuan egoteko baimenarekin batera ematen den identifikazio-zenbakia da, zeina atzerritarrari esleitzen zaizkion agiri guztietan agertuko baita.

Zenbaki horrek ez du Espainiako estatuan bizitzeko gaitzen, baina beharrekoa izango da espedienteen izapide guztiak egiteko: jarduera ofizialetarako edo interes ekonomiko edo profesionalengatik egin beharreko tramite mota guztietarako.

Atzerritarraren identifikazio-zenbakia izatea ezinbestekoa da edozein transakzio ekonomiko egiteko, hala nola: banku-kontu bat irekitzeko, negozio bat ezartzeko, etxebizitza edo auto bat erosteko, zerga-aitorpena egiteko edo atzerritarren bulegoari datxekion beste edozein administrazio-eskaera baten inprimakia lortzeko.

Atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) ofizioz ematen da. Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak berez ematen dio atzerritar orori administrazio-espediente bat irekitzen zaionean; interesdunak berak ere eskatu dezake, baldin eta eskatzeko arrazoia egiaztatzen badu.

Hala, interesdunak zuzenean eskatu dezake, dagokion Poliziaren Zuzendaritza Nagusian.

Dagokion tasa dirutan ordaindu beharko du, eskatzen duen unean.

Behin Atzerritarren eta Mugen Bulego Nagusiak AIZ izeneko zenbakia esleitu ondoren, Kontsulatu Nagusiak interesdunarengana joko du, dagokion ziurtagiria emateko.

Atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ)

➔ Atzerritarraren nortasun-txartela (ANT)

Atzerritarrak Espainiako estatuan duen legezko egoera egiaztatzeko erabiltzen den agiria da.

Txartelaren titularrak berak eskatu behar du zuzenean.

Atzerritarraren nortasun-txartela eskatu ahaliko da, egoera hauetakoren batean egonez gero:

- 1.- Espainiako estatuan sei hilabetez baino gehiago egoteko bisa edo baimen bat izanez gero.
- 2.- Nortasun-txartelaren titularraren lan-egoera edo legezko egoera aldatuz gero (baimena berri izana barne).
- 3.- Lehengo nortasun-txartela lapurtuz, galduz, txikituz edo baliogabetuz gero.

Aurkezteko lekua: Atzerritarren Bulegoan edo Polizia-etxean (Espainian egoteko eskubidea aitortzen edo baimentzen dion baimena lortutako probintziako polizia-etxean).

Atzerritarren bulegoak, Euskal Autonomia Erkidegoan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa)

Aurkezteko epea: hilabete bat, Espainiako estatuan sartu denetik edo baimena ematen zaionetik edo indarrean hasten denetik kontatzen hasita, edo, hala badagokio, txartela lapurtu, galdu, hondatu edo baliogabetu zitzaion unetik.

Eskubidearen baimenaren edo aitormenaren indarraldi bera izango du nortasun-txartelak, eta, hala, baimenak baliozkotasuna galtzen duenean txartela ere baliogabetuta geratuko da.



Interesdunak, atzerritarraren nortasun-txartela jaso ahal izateko, egiaztatu beharko du agiriaren hartzailea dela eta ezarritako tasak ordaindu dituela.

[Atzerritarraren nortasun-txartela \(ANT\)](#)

[Atzerritartasun-tasak](#)

[Tramite eta prozedurei buruzko informazioa- Informazio-orriak](#)

[Egonaldi-baimenaren luzapena](#)

➔ **BUELTATZEKO BAIMENA**

Atzerritarrari Espainiako estatutik irten eta ondoren bueltatzeko baimena ematean datza. Bizileku-baimena edo egonaldi-baimena berritze- edo luzatze-aldian eduki behar ditu baimen hori lortzeko. Hauek dira bueltatzeko baimena eskatu behar duten atzerritarrak:

- a) Bizileku- edo egonaldi-baimen baten titularrak, Espainiako estatuan jarraitzeko gaitzen duen baimena berritzeko edo luzatzeko izapideak hasita badituzte legezko baimen-aldiaren barruan.
- b) Atzerritarraren nortasun-txartelaren titularrak, txartelaren beste kopia bat eskatu badute, txartela indarrean egonda, lapurtu, galdu, txikitu edo baliogabetu zaielako.
- c) Bidaia aparteko arrazoiak eta premia-egoera bat direla medio egin duela egiaztatuta izanda, bai eta hasierako bizileku- edo egonaldi-baimenaren aldeko txostena ere, atzerritarraren nortasun-txartela izapidetzen ari direnak.

[Bueltzeko baimen bat eskatu](#)

➔ **EUROPAKO EKONOMIA ERKIDEGOKO HERRITARRAK**

Espainiako estatuko lurraldean hiru hilabetetik gora bizi behar duten herritarrek Atzerritarren Erregistro Nagusian inskribatzeko eskatu behar dute, baldin eta Europar Batasuneko kidea den estatu bateko herritarrak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetak edo Suitzako herritarrak badira. Europar Batasuneko herritarraren erregistroko ziurtagiria eskatu beharko dute. Informazio xehatua.

[Europako Ekonomia Erkidegoko herritarren prozedurei buruzko informazioa](#)

[Europar Batasuneko/EEEko herritarra izatearen erregistro ziurtagiria](#)

Zeinek aurkeztu dezake eskabidea? Europar Batasuneko edo haren parte den beste estatu bateko herritarrek.

Aurkezteko lekua: Atzerritarren Bulegoa (bizi nahi duen probintziakoa) edo dagokion Polizia-etxea. Orri hau kontsulta daiteke Atzerritarren Bulegoari buruzko informazioa lortzeko (helbidea, telefonoak eta jendea artatzeko ordutegiak):

[Atzerritarren bulegoak](#)

Aurkezteko epea: hiru hilabete, Espainiako estatuan sartu zen egunetik kontatzen hasita. Erregistro-ziurtagiria eman aurretik ordaindu beharko da dagokion **tasa**ren zenbatekoa.

Erregistro-ziurtagiria ematea: behin tasa ordaindu ondoren, eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Europako Batasuneko herritarrari berehala egingo zaio erregistro-ziurtagiri bat, non datu hauek jasoko baitira: izena, nazionalitatea, helbidea, atzerritarraren identifikazio-zenbakia eta erregistro-data.